

**BIZKAIKO FORU ALDUNDIA –EUSKALTZAINDIA:
EUSKAL HERRIKO HIZKUNTZ ATLASA CD-ROM.
*HITZARMENA***

BIZKAIKO FORU DIPUTAZIOA-EUSKALTZAINDIA
EUSKAL HERRIKO HIZKUNTZ ATLASA
CD-ROM DELAKORA PASATZEA (II)

Ignacio Javier Etxebarria Etxeita

Laburra izan gura dot nire solasalditxo honetan. Zortzi urte daroadaz Al-dundian Lehendakaritza Sailaren ardura dodala.

Nahiz eta kultur arloak, funtzionarien arteko hizkuntz normalkuntzari bu-ruzkoak izan ezik, Sail honetatik kanpo egon, beti izan ditut hartu-emon estuak Euskaltzaindiarekin eta bertako hainbat euskaltzain eta langilerekin.

Bestalde, HABEko patronatoan 10 bat urte daroadaz eta han bere sarri egin dot topo euskaltzainekin. Eta ezin ahaztu Durango eta Zornotza aldeko jendea dogula bertan lanean, Lizundia eta Zearreta, besteak beste, eta eurokaz beti izan ditudala hartu-emonak. Horretaz gainera, euskalduntze eta alfabetatze kan-painetan ere ibilia naz.

Behin, etxe honen inaugurazio ekintza ofiziala pasatu eta handik egun ba-tzutara etxe hau ikustera etorri nintzenean, Jose Antonio Arana Martijarekin liburutegia ikusten nenbilela harriturik utzi ninduen horrenbeste zinta ikusteak. Eta Jose Antoniori zertzuk ziren harako zintak itaundu neutson. Eta honela izan neban Atlas Lingüistikoaren berri.

Euskaltzainburu jaunak esan dauen moduan, Atlas Lingüistikoaren atzean 145 herritan egindako bi milatik gora itaunketa dagoz eta orain dela denbora gitxi *Euskera* aldizkarian herriz herri itauntzen edo galdetzen ibili den hainbat jenderen lana agertu da.

Eta lan hau altxor haundi eta berezia da ze, ez dira itaunak bakarrik, itau-nen ostean erantzuleak dagoz eta seguruenik eurentariko batzuk gaur egun ez dira, dagoeneko, gure artean aurkituko. Gainera, dena ahoz burutzerakoan euskara bizia jasotzen da bertan, hau da, esakerak, esamoldeak, tokian tokiko berezitasunak eta abar isladatzen dira horrelako grabaketetan.

Eta horretan ari ginela kezka eta ardura handia somatu neban grabaketen iraupenez, ze, momentuz, horrelako zinten grabazioa ondo entzun arren jen-dearen eskuetan ipintzean, erabileraren erabileraz, apurtzeko edo galtzeko arris-kua egoela ikusten zen.

Eta hortik, proiektu berezi bat moduan sortu zen, Kultura Saitetik bideratzen den ohizko finantziatortik kanpo, aitatu dogun altxorraren artapena.

Une honetan dagozan aukeren artean, direla sei hilabete Durangon izenpetu genduen hitzarmenean, zinta guztien edukina CD-ROM euskarri informatikoan jasotzea jo zen aukerarik egokientzat.

Hitzarmen horrek ahalbideratu eban merkatuan dagoen kalitaterik haundienarekin, kopia bakarra, "masterra" hain zuzen ere, egitea.

Gaur sinatzen dogun hitzarmen berriak ahalbideratuko dau, aldiz, jendeak, batez ere, euskararen ikertzaileak, material hau erabiltzeko aukera izatea, kopia atarata horren kalitate ona ez badabe ere, masterra gordeta eta babestuta geldituko dela.

Horrela, ba, arazo horri konponbide bat topatu deusagu, betirako ez bada, betirako Jainkoa bakarrik da, bai hainbat urterako.

Diputatuaren kargua laster itxiko dauen honek, batetik Euskaltzaindiarekin izan ditudan harremanetan oso gustora izan nazela esan behar dot eta, bestetik, Euskaltzaindiak, Aldundiaren laguntza beti izan dauela jakin izan dauen arren, beti zuhertasun handiaz jokatu dauela, gauzak une eta egoera bakoitzean nola bideratu eta noraino eskatu eitekezan beti neurtuz.

Maila pertsonalean, herriko euskalduna nazen adinean, oso atseginak izan dira, Erakunde honekin izan ditudan hartu-emonak, erakunde mailakoez aparte, maila pertsonalean ere etxe honetako jendea ezagutzen dodalako, beti ondo baino hobeto hartu izan nabela.

Aldundiaren aldetik eskertzen dogu Euskaltzaindiak lankidetzarako beti agertu izan dauen jarrera ona.

Beraz, gaur hemen egiten diharduguna ez da geure buruak goratzeko edo bihar-etzi gogoratuak izateko, Herri-proiektu baten partaide sentitzen garelako baino; gizarte horri eta berorren hizkuntzari laguntza emotea, euskaldun legez, gure erantzukizunari aurre egitea da.

Azkenez, Aldundiaren izenean eta, batez ere, gure Sailarenean, eskerrak emon nahi deusadaz Euskaltzaindiari, lankidetzarako agertu izan dauen jokatibide zabalagatik eta etxe honetan beti gure etxean moduan sentiduarazo gaituelako.

Eta beste barik hitzarmena sinatuko dogu.

**BIZKAIKO FORU ALDUNDIA ETA
EUSKALTZAINDIA EUSKAL HERRIKO
HIZKUNTZ ATLASA DELA ETA**

Hitzarmena / Convenio

En Bilbao, a 15 de junio de 1995.

Por una parte, Ignacio Javier Etxebarria Etxeita, Diputado del Departamento de Presidencia de la Diputación Foral de Bizkaia.

Y por otra, Jean Haritschelhar, Presidente de Euskaltzaindia.

El Sr. Ignacio Javier Etxebarria Etxeita, participa como diputado del Departamento de Presidencia de la Diputación Foral de Bizkaia y el Sr. Jean Haritschelhar como representante de Euskaltzaindia.

Ambas partes se reconocen capacidad para firmar el presente Acuerdo y a tal fin

Bilbo, 1995eko ekainaren 15ean.

Batetik, Ignacio Javier Etxebarria Etxeita, Bizkaiko Foru Aldundiko Lehendakaritza Saileko diputatua.

Eta bestetik, Jean Haritschelhar, euskaltzainburua.

Ignacio Javier Etxebarria Etxeita jaunak, Bizkaiko Foru Aldundiko Lehendakaritza Saileko diputatu lege hartzen du parte, eta Jean Haritschelhar jaunak Euskaltzaindiaren izen eta ordezkari lege.

Alderdi biek Hitzarmen hau izenpetzeko ahalmena aitortzen diote elkarri, eta honako hau dute

EXPONEN

1.º Que Euskaltzaindia es una entidad con personalidad jurídica y sin ánimo de lucro, siendo su finalidad básica la investigación, corrección y promoción del euskara y el promover, organizar y programar todas las acciones necesarias para dicha finalidad.

2.º Que en los últimos años, Euskaltzaindia, con la finalidad de hacer el Atlas Lingüístico de Euskal Herria, ha realizado infinidad de grabaciones en 145 localidades y que dichas grabaciones están guardadas en base informática CD-ROM.

ADIERAZI

1. Euskaltzaindia nortasun juridikodun erakundea dela eta irabazasmo gabekoa gainera, bere helburu orokorra euskara aztertu, zuzendu eta bultzatzea dela eta horretarako beharrezko diren ekintza guztiak sustatu, antolatatu eta eratzea.

2. Azken urteotan Euskaltzaindiak, Euskal Herriko Atlas Linguistikoa egin ahal izateko, 145 herritan hainbat galdeketa grabatu egin dituela, eta grabaketa hauek CD-ROM euskarri informatikoan gordeta daudela.

3.º Que dichas 3.500 horas grabadas son un tesoro incalculable para conocer el idioma y de modo especial los dialectos, puesto que en ellos se fundamentarán en adelante todas las investigaciones del uso oral.

4.º Que es conveniente poner todo ese tesoro incalculable que posee Euskaltzaindia, en la medida de lo posible, a disposición de Euskal Herria y de modo especial en manos de los investigadores del euskera, en la Biblioteca de la Academia.

5.º Para poder realizar este servicio es necesario realizar copias complementarias, aunque sean de una calidad algo inferior al original.

6.º Que la Diputación Foral de Bizkaia manifiesta que desde la fundación de Euskaltzaindia en 1918 en su sede, ha tenido el deseo de promocionar el euskera y esta Entidad.

7.º Que la Diputación Foral de Bizkaia ha tenido un miramiento particular en guardar y proteger el tesoro de los dialectos, y que acepta plenamente la importancia de las cintas que posee Euskaltzaindia para asegurar para el futuro la información referente a los dialectos.

PARTES DEL ACUERDO

Primera.—Todas las copias del Atlas Lingüístico de Euskal Herria en base informática CD-ROM serán en formato de 11 kilohercios y 16 bytes.

Segunda.—En todos los CD-ROM que se usen para ese trabajo se pondrán en serigrafía los escudos de la Diputación Foral de Bizkaia y Euskaltzaindia.

Tercera.—La Diputación Foral de Bizkaia dará una subvención de 2.000.000 de pesetas para realizar ese trabajo.

3. Grabatuta dauden 3.500 ordu horiek hizkuntza, eta batez ere euskalkiak ezagutzeko altxor paregabea dela, horretan oinarrituko baitira aurrerantzean ahozko erabileraren ikerketa guztiak.

4. Euskaltzaindiak duen altxor paregabe hori, bere balioa areagotzeko, ahal den neurrian, Euskal Herriko euskararen ikertzaileen esku Azkue bibliotekan ipintzea komeni dela.

5. Zerbitzu hau eskaini ahal izateko, kontsultarako kopia osagarriak egin behar direla, originala baino kopia arruntagoak izango badira ere.

6. Bizkaiko Foru Aldundiak, Euskaltzaindia 1918. urtean bere egoitzan sortu zenetik, euskara eta Erakunde hau bultzatzeko guraria izan duela agertzen du.

7. Bizkaiko Foru Aldundiak begirune berezia izan duela euskalkien altxorra zaindu eta gordetzeko, eta erabat onartzen duela Euskaltzaindiak dituen zinta horien garrantzia etorkizunean euskalkiei buruzko informazioa bermatzeko.

ERABAKI ATALAK

Lehena.—Euskal Herriko Hizkuntz Atlaseko CD-ROM euskarri informatikoan egindako kopiak 11 kilohertzio eta 16 byteko formatoan izango dira.

Bigarrena.—Lan hori egiteko erabiliko diren CD-ROM guztietan Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Euskaltzaindiaren ikurrak serigrafiatuko dira.


Hirugarrena.—Bizkaiko Foru Aldundiak 2.000.000 pezetako dirulaguntza emango dio Euskaltzaindiari lan hori gauza dezan.

Cuarta.—Euskaltzaindia deberá finalizar dicho trabajo para finales del 31 de diciembre de 1995.


Y en conformidad con lo arriba expuesto, firman en cuatro copias en el lugar y días mencionados.

Laugarrena.—Lan hau 1995eko abenduaren 31a baino lehen amaitu behar du Euskaltzaindiak.

Eta goian esandakoaren adostasunez, laukoiztuta izenpetzen dute esandako leku eta egunean.



LEHENDAKARITZAKO
DIPUTATUAK,
EL DIPUTADO DE PRESIDENCIA



EUSKALTZAINBURUAK,
EL PRESIDENTE DE
EUSKALTZAINDIA